

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

Onestea mozioak izapidetzeko irizpideak aldatzea

Bo200921C. Oiongo udalbatzak mozioak izapidetzeko irizpideak aldatzea onetsi du, eta onartutako mozioak izapidetzeko irizpideen aldaketarekin bat etorritz, honela geratu da:

I. Batzordeak egin aurreko asteko asteartea baino lehen aurkeztu behar dira mozioak, udalbatzaren ohiko osoko bilkurako gai zerrendan sartzeko.

II. Idazkaritzak posta elektronikoz bidaliko die gainerako bozeramaileei.

III. Zinegotziek eta talde politikoek baino ez dute eskubidea, bilkuran, mozioak eta proposamenak aurkezteko, irizpenen gaineko boto partikularrak edo zuzenketak defenditzeko eta eske-galderak formulatzeko.

IV. Mozioak, ohiko osoko bilkuraren aurretik informazio batzordeen ohiko bilkuretan landuko dira, ahal dela adosteko. Horrela, mozioak negoziatu, zuzendu eta adosten saiatzeko epea ez da astebete baino laburragoa izango.

Mozioak izapidetzeko irizpideen hasierako onespena 2351 eta 2529 iragarkien bidez argitaratu zen. Iragarki horiek 2019ko uztailaren 24ko ALHAOn (85. zk.) eta 2019ko abuztuaren 9ko ALHAOn (91. zk.) argitaratu ziren, hurrenez hurren.

Oion, 2020ko irailaren 21a

Alkatea

EDUARDO TERROBA CABEZÓN